

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN 2015-EKO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Joan den ekainaren 29an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2015eko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena; kontu orokorra Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA), Gizarte Urgazpenerako Foru Erakunde Autonomoaren (GUFÉ) eta Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten 18 erakundeen kontuek osatzen dute.

HKEEk aldeko iritzia plazaratu du BFaren Kontu Orokorrari buruz, nahiz zalantza egoera dagoela azpimarratu duen Azpiegiturak, SAUren zenbait eraikinen balorazioaren gainean, 16,2 milioi euroan erregistratu direnak.

Gainera, Amorebieta-Muxika bide-zatia eraikitzeko lanen hasierako kontratuaren esleipendunak aurkeztutako demanda ebazteko dagoela azpimarratu du, kontratistari egozgarriak zaizkion arrazoiengatik bertan behera utzi zena. 2016ko urtarrilaren 14an Interbiak, SAk 24,6 milioi euroan esleitu zituen bide-zati hori amaitzeko lanak.

Txostenak fiskalizazio-gai izan duen Kontu Orokorraren egoera finantzarioa aztertu du. Foru sektore publikoaren **zorpetzeak behera egin du** 31 milioi euroan. Baita **sarrera arruntek eragindako diru-bilketak** ere (zerga zuzen eta zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak), baina gora egin dute bai **kapitalezko transferentziek** bai **erakunde konpromisoetarako ekarpenek** ere: Estatuari Kupoak, EAEn Administrazio orokorrari aurrekontuak finantzatzeko eta Udalei Udalkutxa eta itundu gabeko zergetan partaidetza kontzeptuan egindako ekarpenek. Sarreretan izan den behaldia beheraldi, aurreko ekitaldietako zenbateko berean inbertsioak finantzatzeko behar adina baliabide sortu dela ondorioztatu du Epaitegiak.

Epaitegiak, berebat, aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak bete direla adierazi du. Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzari Independenteari igorri zitzairen eta horiek ez dute salbuespenik adierazi.

Bai Aldundiak bai GUFÉk eta Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek ere, zuzentasunez bete dute euren ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege araudia,

nahiz unean uneko akatsak azaleratu diren langileen eta kontratazioaren ataletan; hala nola, **langileen** atalean osagarri bat ordaindu da 2015eko Aurrekontuen Foru Araua urratuta; PFEZetik salbuetsitakotzat jo dira BFAk eta GUFEk ordaindutako zenbait ordainsari, Langileen Estatutuan aurreikusitako kausak egiaztatu gabe; eta BizkaiKOA foru enpresa erakunde publikoan aldi baterako kontratu bat mugagabe bihurtu da deialdi publikorik egin gabe; halaber, **kontratazioari** dagokionez, GUFEn 781.945 euroren erosketak egin dira prozedura irekia baliatu gabe; Euskalduna Jauregia, SAn kontratu bat luzatu da finkatutako epea gaindituta eta aldi berean balioztatu dira formulak aplikatuta kuantifikagarriak diren irizpideak eta gainerako irizpideak.